

MARTXA

1/ Orain urte bi etorri giñan
Zalduniote goizean
Donostiara, andre ta gizon
kantari eta lanean:
Aurten berriro gatoz Plazara
Zanpanzart bazkal aurrean
kanta, soñu eta dantzakin p
ozez umore onean.

2/ Gurekin dator aita Josephe,
agure gordiñ maitea,
maisu aditu aspaldikoa,
langille pare bagea;
ona Josephe, gizon zintzoa,
nagusi prestu gurea,
nekean pizkor, jolasean zar
eta festetan gaztea.

BELAUN-TXINGOA

Zortzi langille maisu, guztiak gazteak,
eta emazteak,
arintzen nekeak,
gatoz plaza, berrira umore onean,
dantzari lanean,
kantari nekean.
Soñubarekin gera alegre dantzatzen,
ez gera nekatzen,
ez ere aspertzen:
salto bada, gizonak, ta andreak, salta,
egiñ lana, kanta,
ta nekean dantza.

IRU DAMATXO

1/ Donostiako festara gatoz
berri onakin kantari,
emen lendanaz jakin dirala
plazan ondo da ageri;
Infanta maitea, jayotxo berria,
salbe, ta ongi etorri.

2/ Infantatxoa zeren dan jayo,
Donostiako jendea,
festan egunaz, gabeen festan,
dago naikeraz betea:
atsegiñ, zorion, biotz leyaleko
pozaren ezin gordea.

ZORTZIKOA

1/ Zortzi ofiziotan
degu gure lana,
atozte lenbiziko
dendariagana:
eramango dezute
beti gauza ona,
burutik oñetara
jazteko persona.

2/ Zapatariak ditu
biziro sendoak
bota ederrak merke
eta modakoak:
zapata polit, larru
oyal sedazkoak,
ondo erribetatu
eta neurrikoak.

3/ Arotzak ugari ta
merke dauzka gayak,
egiteko apalak,
kutxak eta oyak:
iskindokiak, mairak,
ate, leyo, mayak,
alki, armarioak
eta arilkayak.

4/ Kupelgilleak ditu
zuben serbitzeko,
tonel, barrika, barril,
sulla ta tiñako:
ontzi burniz josiak
bañubak artzeko,
ustai eta zumeak
lana egiteko.

5/ Itxarkizayak dauzka
parol eskukoak,
inbutu, kafe-ontzi,
olio-txarroak,
kandelero, neurriak,
platerak, potoak,
alanbre-sare eta
enzuluzetxoak.

6/ Perratzalleak bere
iltze ta perretan
egitekoa urri
dauka plaza ontan:
bañan beti ugari
ordu guztietan
mandazai, idizai ta
ostalarietan.

7/ Pazigilleak berak
nai duben adiña
zarrak adobakitzen
badu zer egiña:
txokolateratxoa,
pertzta, zartagiña,
pazi, tupi, kaldera
eta kalderiña.

8/ Txorrotxgillea bere
arri leunean
bururik jaso bage
ari da lanean:
eguna argitzetik
illundu artean
guraize labanakin
kale-kantoyean.

9/ Adio, Donostia,
asko da, jendeak,
despeditzen zaituzte
oraiñ langilleak:
esker onez beterik,
gizon ta andreak,
oroituko gerade
joan arren urteak.

